

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 920

*151/2016 EBAZPENA, otsailaren 22koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Jesús Millas Ros jauna Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari izendatzen duena eta zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko duena.*

Aztertu dugu Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 8ko 12/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko urtarrilaren 22ko EHAAren (14. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak ere, «curriculum vitae»-n jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Jesús Millas Ros jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Jesús Millas Ros jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Fakultatibo Espezialista Familiako Medikua. Lehen Mailako Taldea, lanpostu funtzionalaren 4406 plazaren jabea dena, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, ofizioz deklaratu behar da Osakidetzako langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek,

#### EBATZI DU:

Lehenengoa.– Jesús Millas Ros jauna izendatzea Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko Medikuntza Arloko Asistentzia Koordinatzeko zuzendari.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko otsailaren 22tik aurrera emango ditu ekonomia eta administrazio ondorioak.

Hirugarrena.– Jesús Millas Ros jauna zerbitzu berezietako egoeran deklaratzeko, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 22a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.